



AITZPEA LEITZAOLA

Kamioilari hasi zen gaztetatik Jose Iruretagoiena eta 36ko Gerran auto gidaria izan zen. Euskal Ejertzitoan Saseta buruzagi militarrekin ibili zen hara eta hona. Gutxi bezala poztu da egunotan, frontean hildako komandante mitikoaren hezurak topatu dituztela eta. Xabier Lasa historialariak egindako elkarrizketa interesgarria ekarri dugu hona, *Aiurri* aldizkarian argitara emana.

Jose Iruretagoiena, Saseta komandantearen txoferra

«Eskapada ederra egin genuen Areceseko batailan»

XABIER LASA

DONOSTIAKO EGIA auzoan jaio zen Iruretagoiena; 1949an Maria Barrenetxea itsasuarrekin ezkondu ondoren, bikotea Andoainen jarri zen bizitzen Kale Berrian. Gerra aurreko urteetan apenas sartu zen politikan, “kamioiarekin lana besterik ez bainuen egiten, orain Madriler, orain Nafarroara...”. Frankistak altxatu zirenean, baina, bizkor joan ziren bere anaia Pedro eta biak boluntario Azpeitiko Loiolara, Euskal Gudarostea osatzen ari zela eta. Fusila nola erabili, beste instrukziorik ezin izan zuen jaso. Berehala, 4 zilindroko Ford auto baten giltzak eman, eta buruzagi militarren agindutara jarri zuten. Orduan hasi zen ibiltzen orpoz orpo Saseta komandantearekin; hondarribitarra karrera militarrekoa eta nortasun handikoa zen, eta hargatik izendatu zuten Gudarosteko buruzagi nagusi. “Lino Lazkano, Juan Beistegi, Kandido Saseta eta beste ofizialak batera eta bestera eramatea zen nire eginkizuna. Molaren ejertzitoak Gipuzkoa hartu zuen arte, Sasetarekin Bidanian, Zarateko Bentan eta inguru horietan izandako borrokal dietan ibili nintzen. Autoa aparkatu eta frontera fusilarekin!”.

Saseta gizon jator eta jakintsua izateaz gain, giza taldeak borrokara edo behar zen tokira eramateko grazia zuela aitortu digu Josek. Beizamako guruzbidean, Santutxo taberna inguruan gertatutako pasadizoa dauka gogoan, atzo bizi izan balu bezala. “Militarren kontuetan ezjakinak izan gu, faxisten aurka tiroka genbiltzala izutu eta jartzen ginen makur-makur tiro baten hotsa aditu orduko. Hala esan zigun orduan

Goian, Jose Iruretagoiena Sasetaren hilobi ondoan, Hondarribian. Behean, Kandido Saseta 36ko Gerran Euskal Ejertzitoaren zerbitzura jarri zen eta Asturiasen hil zuten lubakietan, beste 80 gudarirekin batera, gehienak EAE-ANVkoak. Orain, Sasetaren Aldeko Taldeak eta Aranzadik bere gorpuzkinak berreskuratzea lortu dute. Beheko irudian Saseta gerra frontean beste buruzagi batzuekin.

Sasetak: ‘Horiek ez zeukatek beldurrik. Txistu egiten ez dutenak dituk txarrak’.

Asturiasen Sasetarekin

Euskal frontea Bizkaia eta Gipuzkoako mugetan egonkortu zenean, Eusko Jaurlaritzak aginduta Saseta Asturiasera abiatu zen 1937ko otsailean, Amaiur, Prieto eta Euzko Indarra batailoiekin; Ipar Frontea paraje haietan ere defendatu behar baitzen. Josek berak eraman zuen hara Saseta. “Bataila handia gertatu zen Arecesen. Frankistek arma asko zeuzkaten eta igual ehun gudari hil ziren, Saseta tartean. Eskapada ederra izan zen gurea”. Lagunen gorpuk nolabait eta nonbait lurperatu, eta Bizkaiko frontera itzuli ziren gainerrakoak. Bonbardaketa eta hilketa ugariaren lekuko izan zen hurrengo hilabeteetan. Baita heriotza gertutik eduki ere! Gernikako bonbardaketan, adibidez: “Apirilaren 26koan Gernikako Errenteria auzoan nengoen. Erreka batean babestu nintzen, baina zer da eta zubi bat egon ondoan! Hura ikusi orduko, etengabe saiatu ziren txikitzen. Bonbak jaurti eta jaurti; ez gu ez zubia ez zuten ikutu, hala ere!”.

Euskal Ejertzittoa menderatua izan zenean, Iruretagoiena Santoñan atzeman zuten. Italiako ejertzitoko koronel batek bere gidaritzat hartu zuen orduan. “Langile Batailoetara destinatu eta Amilcare Farina izeneko koronelarekin aritu behar izan nuen gerra bukatu arte. Espainiako fronte guztietan ibili ginen. Ondo jokatu zuen nirekin, egia esateko. Frankistek presoak zein gaizki tratatzen zituzten ikusten zuenean, zera esaten zidan: *No hay que vencer, hay que convencer.* ■

